

Paperetik builaka datoz unibertsitarioak

Estra! Estra! Euskarazko hamabostekari bat sortu da EHUUn! *Harrabots* du izena eta beharrezkoa zen inondik ere, geroz eta ikasle euskaldun gehiago dituen eremuan. Biologiako ikasle talde batek sortu du, baina dagoeneko karrera askotako jendea hurbildu zaie.

GORKA BEREZIARTUA



BIOLOGIAKO ikasleek sortu duzuela? Kazetaritzakoak izango zinetela uste nuen...

—Egia esan orain jende pila bat ari gara lanean lehen geundenekin konparatuta. Kazetaritzatik ere hurbildu dira —azaldu du telefonoaren beste aldetik *Harrabots* aldizkariko Oier Aranzabalek. Ikasle batzuek burua botanika eta zoologia liburu artetik atera eta prentsan aritzeko txolarte bat

hartzea ederra izango zela pentsatu zuten urte honen hasieran. Beharra bazegoen Aranzabalen esanetan: “Asko harritu nintzen unibertsitatean ikasleek egindako euskarazko aldizkariak ez zegoela ikustean”.

Erdi broman hasi ziren aldizkaria sortzeko ideiarri bueltak ematen, baina pixkanaka bilerak antolatu eta forma eman zioten. *Harrabots*en lehen piezak burutazio faktoria dinamikoek

nean jarri zituzten: unibertsitateko kafetegian. Ondoren, fabrikatik ateratzeko ordua iritsita, EHUri laguntza eskatu zioten.

Judoa eta euskal prentsaren harremanak ez du entziklopedia idazteko adina ematen, baina kasu honetan batak izan du bestean eraginik. Ludger Mees EHUko Euskara Errektoreordeak argitu du harreman hori: “Kasualitate hutsa izan zen. *Harrabots*eko kide

batek [Aranzabalek berak] nire semearekin batera judoa egiten du, klub berean. Bera biologia ikasten hasia zen gure unibertsitatean eta bazekien ni Euskara Errektoreordetzan nengoela. Lehiaketa batera eramanez nituen batean esan zidan egitasmo bat bazeukate-la, lagun batzuen artean aldizkari bat kaleratzeaz hitz egin zutela eta ea zer iruditzen zitzaidan”. Kiroltasunez bile-ra egiteko hitzordua jarri zuten, proiektua borobildu eta unibertsitatearen laguntza zehazteko. Oraingoan, ikasturte honetan argitaratu diren zenbakien kopiak ordaindu ditu Euskara Errektoreordetzak, kazetaren aurkezpen ekitaldirako beharrezko baliabideak jartzeaz gain. Aranzabalek dio hurrengo urtean elkarte modura erregistratu nahi dutela, dirulaguntza ofizialak jaso ahal izateko.

Errektoreordetzak premiazko ikus-tzen zuen horrelako proiektu bat, ikas-le asko baitago euskara buruan izanda mingaineratzen ez duena. “Iruditzen zaizkigun halako ekimen batek laguntzen duela arlo hori garatzen”. Meesen ustez ikasleek sortua izateak balio erantsia ematen dio gainera: “Nahiago dut goitik behera planifikatzea baino, behetik gora egitea”.

1.500 aleko tirada

0. alea aurtengo maiatzean kaleratu zen, lehen orrialdetik “harrabotsa, kalapita, astrapala, iskanbila eta hainbat sinonimo gehiago” sortzeko gogoz. Eta momentuz zarata, burrunba eta asaldura –hara hor sinonimo batzuk– ateratzen ari dire-la ematen du. “Kazeta guztiak desagertu egiten dira. Ez dakit hartzen duten guztiek irakurriko duten edo batzuek abioiak egiteko erabiliko dituzten, baina...”. 1.500 ale bota dituzte aurreneko hiru zenbakietan, 750 Gipuzkoan banatzeko eta beste horrenbeste Bizkaian.



Harrabots kazetaren aurkezpen ekitaldia.

Oraingoan bi herrialde horietan dauzka lantaldeak *Harrabots*ek. Araban hari muturrak lotzen ari dira, jendea biltzen, eta Aranzabalen ustez lortuko dute taldea osatzea, “euskal Filologia ikasten ari diren ezagunak badauzkagu”. Nafarroako eta Iparraldeko unibertsitateetara iristeko asmoa ere badute. “Gure helburua ez da EHUko aldizkaria izatea, ikasle euskaldunona baizik”.

Zer dio harrabotsak?

Irakasle askok ez dute lortzen ikasle-en interesa piztea. Ez da erronka erraza unibertsitateko kazeta baten-tzat ere. *Harrabots*en plazaratuko diren gaiak ez dute fakultate giroarekin zerikusirik izan behar derrigorrez. “Dena onartuko da, gogoetak, poe-

siak, bertsoak, artikulua, erreportajeak, elkarrizketak...”. Sail finko batzuk izango dituzte: “Ezagut” izenekoan pertsonaia, talde edo erakunde baten inguruko xehetasunak emango dira; agenda eskainiko dute “Kulturaldia” sailean; “Fakultate-tik” atalean berriz, ikasleek landutako gaiak agertuko dira. Eduki horiek eta iritzi saila ondo bereizteari garrantzia eman diote. “Iritzi artiku-luak sinatuta joango dira eta gainera-ko sailetan berriz, ideologiak alde batera utzi nahi ditugu”.

Amaraunean interesa pizten

Azterketak bukatuta izango dituzte ikasleek lerro hauek argitaratzerako. Azken hilabete honetan aldizkaria eta testu liburuak uztarri beretik tiraka eramanez dituzte *Harrabots*ekoek. “Urte osoa pasa dugu lanean hona iristeko eta justu azterketa garaian hasi gara aldizkaria argitaratzen. Zaila izan da ikastearekin batera egitea, baina jende dezente garen ez da arazorik izan aurrera eramateko”. Eta orain, udako lasaitasunean, arma-arma sareak hasiak izango dira testu liburuak estaltzen. Bestelako sareek ordea martxan jarraituko dute. Paperean banatzeaz gain Interneteko amaraunean ere badu bere tokia ikasleek kazetak. <http://harrabots.mundua.com> helbi-deko blogean aldizkariaren inguruko datuak aurkituko ditu bisitariak, baita e-posta bidez jasotzeko jarraitu behar-reko urratsak ere. Gainera, Oier Aranzabalek azaldu duenez, EiTB tal-deak interesa agertu du proiektuan: “EiTB 24ko zuzendariak deitu zigun, Euskadi Gaztearen web gune berrian tokia utziko zigutela esanez”. Gai horretaz hitz egitekoak dira, baina bitartean orain arteko gunearekin gus-tura daudela dio Aranzabalek. ■

1.500 ale bota dituzte
aurreneko hiru zenbakietan,
750 Gipuzkoan banatzeko
eta beste horrenbeste
Bizkaian. Oraingoan bi
herrialde horietan dauzka
lantaldeak *Harrabots*ek,
nahiz eta aurrerago Euskal
Herri osora heltzeko
asmoa duten

Babeslea: Errenteriako Udala

Errenteriako Udala

euskarazko komunikabideen alde

euskara
zerbitzua

errenteriako udala